

Munduko XV. Futbol Txapelketa

# Garaipena eta... etxera

## 2 KOLONBIA

Cordoba (\*); Herrera (\*), Escobar (\*), Mendoza (\*), L. Alvarez (\*\*); Gaviria (\*), Perez (\*), Valderrama (\*\*), Rincon (\*); Valencia (●), Asprilla (\*\*). Lozano (\*) Gaviriaren ordez (79. min.), eta De Avila (\*) Valenciaren ordez (63. min.).

## 0 SUITZA

Pascolo (\*\*); Hottiger (\*), Herr (\*), Geiger (\*), Quentin (\*\*); Bregy (\*), Ohrel (\*), Sforza (\*), Sutter (\*\*); Knup (●), Chapuisat (●). Grassi (-) Sutter-en ordez (81. min), Subiat (-) Knupen ordez (81. min.).

**GOLAK:** 1-0: Gaviria (44. min). 2-0: Lozano (90. min.).

**ARBITROA:** Mikkelsen (Danimarka). Lau txartel hori: Knup, Gaviria, Valderrama eta Quentin.

### PELLO AIASTARAN / DONOSTIA



Kolonbiak bi partidu desberdin jokatzeko zuten C multzoko azken jardunaldian: alde batetik, Suitza gutxienez bi golez gainditu beharra zeukan Pacho Maturanak zuzentzen duen taldeak, eta gainera Estatu Batuek Errumaniari irabaztea behar zuten, hirugarren postua bereganatu ahal izateko. Bere partea bete zuten hegoamerikarrek, baina zoritxarrez Errumaniak irabazi egin zion Estatu Batuetako taldeari. Horrela, Mundialaren atarian faborito nagusien artean ageri zen selekzioa etxerako bidan dugu. Kolonia da, hain zuzen ere, Mundialetik kanpo geratu den aurreneko selekzioa.



Asprillak ez du bere maila erakusterik izan Mundial honetan.

Gutxienez irudi hobeak eskaini zuten kolonbiarrek Suitzaren kontra. Aurreko partiduetan baino lasaiago, erasoari ekin zioten Pacho Maturanaren gizonak.

Jokaldi politikak egin zituzten, baina azken metroetan ez ziren oso fin ibili kolonbiarrak. Gainera, aukera onak izan zituzten bakoitzean Pascolo atezaina topatu zuten aurrean. Lehen zatiko 44. minutuan, ordea, Pascolok ez zuten Gaviriaren burukada geratzerik izan eta Kolonia 1-0 aurreratu zen markagailuan, orain-

dik ere bigarren zati osoa jokatzeko zegoela.

Bigarren zati horretan ez zen ikuskizun handirik egon. Suitzako taldeak aurrerago jokatu zuten, baina arrisku handirik sortu gabe. Koloniak, berriz, aurreneko 45 minutuetan eginiko jokoa aldagelan utzi zuen nonbait, eta irudi kaskarra erakutsi zuen berriro ere. Jadanik partidua amaitzeko zegoela, Walter Lozanok 2-0eko markagailua ezarri zuen, dena erabakita uzteko.

## Maturana: «Lasai joan gaitezke»

DONOSTIA

Pacho Maturanak bere azken partidua bete zuen herenegun Kolonbiako selekzionatzaile bezala, Suitzaren kontrako garaipen batekin. Aurreko bi partiduetan baino askoz ere itxura hobe eskaini zuen Koloniak. Maturanaren hitzetan, presiorik ez zutelako jokatu zuten hobeto. «Askatasun gehiagorekin jokatu ahal izan dugu, eta horregatik partidua aurrera atera dugu».

Mundialean eginiko lana kaskarra izan bada ere, lasai joateko moduan daudela dio teknikoak. «Ez da pozik egoteko, baina lasai joan gaitezke, lanean segitu eta beti lortu nahi izan ditugun helburuak lortzeko harrobi sendoa baitago Kolonbian». Maturanaren ustez, «orain arte eginikoa barneratu eta etorkizuna horren gainean egituratzen badu, askoz ere hurbilago izango ditu bere helburuak Kolonbiak».

Zortzi urte luze eman ditu Maturanak selekzioaren entrenatzaile postuan. Epe horretan eginiko lanaren balantzea nahiko positiboa da Maturanaren iritziz. «Lan egiteko era bat aukeratu genuen, Koloniako futbolaren protagonista izatera heltzeko. Lasai noa, zortzi urte hauetan arrakastak beste guztiaren gainetik egon baitira».

Selekzioa uzteko erabakia behin-betikoa den galdetu zitzaion Maturanari. Erantzuna, ezin argiagoa: «Bizitzan epeak izaten dira beti, eta nik ere epe bat ezarri nuen. Ez dago atzera egiteko inolako posibilitaterik».

## atarian

### «Inork ezingo du Argentina geratu»

Jozef Mlynarczyk Poloniako jokalaririk nazional ohiak garbi dauka bere faborittoa, «inork ezingo irabazle izateko daraman bidean. Ezta Brasil ere, zeren nahiz eta izugarrikoak egiteko gai den, partidu orotan beti izaten ditu une eskas batzuk, bere jokoa, erritmoa geldirik egoten direneko une batzuk, eta horrek bere porrota ekar dezake».

### Preud'homme ekipoa gorai patuz

Michel Preud'homme 35 urteko belgikarra dugu, agian, Mundialeko atezainik onena, momentuz. Larunbatean Holandaren aurka egin zuen bere partidurik onena, baina berak ez du bere burua gorai patu, taldea baizik, «garrantzitsuenak ekipoa orduan egin zuena baita. Ekipoak ez badu erantzuten, zure lana ezin da garrantzitsua izan nahiz eta lana ondo egin».

### Hanburgesik ez Boliviako selekzioarentzat

Egunotan Boliviako selekzioa kideek ez dute hanburgesarik jan, nahiz eta guztiak ere McDonald's multinazionalaren hotel batean kontzentratu egon. Boliviako janaz arduratzen denarentzat, «hanburgesak koipe gehiegi du eta ez da onak jokalarientzat». Beraz, Xabier Azkargorta entrenatzaile azpeitiarraren mutilek ez dute honelakorik jango.

### Brasilen saioa saskibaloiko kantxa batean euriagatik

Brasilgo selekzioa jokalariek saskibaloiko kantxa batean egin zuten entrenamendua. Romario, Bebeto eta euren lagunak Detroiten daude. Egun hauetan hiri honetan sekulako euria ari du eta Parreira hautatzaileak nahiago izan zuen entrenamendua estalpean egitea. Jokalariek beroketa ariketa batzuk egin zituzten. Ez ziren gehiegi nekatu, hortaz. Gaur jokatu behar dute lehen faseko azken partidua Suediaren kontra.

## SAILKAPENAK

A multzoa	J	I	B	G	AG	KG	P
Errumania	3	2	0	1	5	5	6
Suitza	3	1	1	1	5	4	4
EEUU	3	1	1	1	3	3	4
Kolonia	3	1	0	2	4	5	3

Eguna	Partidua	1-0
18	EEBB-Suitza	1-1
18	Kolonia-Errumania	1-3
22	Errumania-Suitza	1-4
22	EEBB-Kolonia	2-1
26	EEBB-Errumania	0-1
26	Suitza-Kolonia	0-2

D multzoa	J	I	B	G	AG	KG	P
Argentina	2	2	0	0	6	1	6
Nigeria	2	1	0	1	4	2	3
Bulgaria	2	1	0	1	4	3	3
Grezia	2	0	0	2	0	8	0

Eguna	Partidua	4-0
21	Argentina-Grezia	4-0
21	Nigeria-Bulgaria	3-0
25	Argentina-Nigeria	2-1
26	Bulgaria-Grezia	4-0
30	Argentina-Bulgaria	-
30	Grezia-Nigeria	-

B multzoa	J	I	B	G	AG	KG	P
Brasil	2	2	0	0	5	0	6
Suedia	2	1	1	0	5	3	4
Kamerun	2	0	1	1	2	5	1
Errusia	2	0	0	2	1	5	0

Eguna	Partidua	2-2
19	Kamerun-Suedia	2-2
20	Brasil-Errusia	2-0
24	Brasil-Kamerun	3-0
24	Suedia-Errusia	3-1
28	Brasil-Suedia	-
28	Errusia-Kamerun	-

E multzoa	J	I	B	G	AG	KG	P
Italia	2	1	0	1	1	1	3
Norvegia	2	1	0	1	1	1	3
Mexiko	2	1	0	1	2	2	3
Hego Irlanda	2	1	0	1	2	2	3

Eguna	Partidua	0-1
18	Italia-H. Irlanda	0-1
19	Norvegia-Mexiko	1-0
23	Italia-Norvegia	1-0
24	Mexiko-H. Irlanda	2-1
28	Italia-Mexiko	-
28	H. Irlanda-Norvegia	-

C multzoa	J	I	B	G	AG	KG	P
Alemania	2	1	1	0	2	1	4
Espainia	2	0	2	0	3	3	2
Hego Korea	2	0	2	0	2	2	2
Bolivia	2	0	1	1	0	1	1

Eguna	Partidua	1-0
17	Alemania-Bolivia	1-0
18	Espainia-H. Korea	2-2
21	Alemania-Espainia	1-1
23	H. Korea-Bolivia	0-0
27	Bolivia-Espainia	-
27	Alemania-H. Korea	-

F multzoa	J	I	B	G	AG	KG	P
Belgika	2	2	0	0	2	0	6
Holanda	2	1	0	1	2	2	3
Saudi Arabia	2	1	0	1	3	2	3
Marokko	2	0	0	2	1	3	0

Eguna	Partidua	1-0
19	Belgika-Marokko	1-0
20	Holanda-Saudi Arabia	2-1
25	Belgika-Holanda	1-0
25	Saudi Arabia-Marokko	2-1
29	Marokko-Holanda	-
29	Belgika-Saudi Arabia	-

### GOLEGILEAK

- Batistuta (Argentina), Dahlin (Suedia)
- Goikoechea (Espainia), Raducioiu (Errumania), Klinsmann (Alemania), Hagi (Errumania), Knup (Suitza), Valencia (Kolonia), Romario (Brasil), Luis Garcia (Mexiko), Amin (Saudi Arabia), Caniggia (Argentina), Stoibkov (Bulgaria)
- Embe (Kamerun), Oman-Biyick (Kamerun), Ljung (Suedia), Houghton (Hego Irlanda), Rekdal (Norvegia), Degryse (Belgika), Bregy (Suitza), Wynalda (EEBB), Salinas (Espainia), Bo (Hego Korea), Won (Hego Korea), Rai (Brasil), Jonk (Holanda), Taument (Holanda), Maradona (Argentina), Yekini (Nigeria), Amokachi (Nigeria), Amunike (Nigeria), Sutter (Suitza), Chapuisat (Suitza), Stewart (EEBB), Aldridge (Hego Irlanda), Marcio Santos (Brasil), Bebeto (Brasil), Brohin (Suedia), Salenko (Errusia), Escobar (Kolonia, bere aitean), Albert (Belgika), Al Jaber (Saudi Arabia), Chaouch (Marokko), Siasia (Nigeria), Letkov (Bulgaria), Borimorov (Bulgaria), Petrescu (Errumania), Lozano (Kolonia), Gaviria (Kolonia)